AZALPENAK

IBAYONDO'N

LAUAXETA

¡Oindiño begijetan daukogu igandeko ikusgaŕija! Ibayondo'n ixan gintzazanoi etxaku beinguan aztuko an ikusi geban edeŕtasuna. ¿Zenbat anei ziran an batutako abeŕtzaliak? Ogei-anei? ¿Geyago? ¿Gitxijago? Zenbakijak eztauskube ardurarik egiŕen Asko ixan ziran, zelayan bat geyago etzan aŕtzen. Bizkaya osotik eldu ziran abeŕtzaliak geure Zaindari deunaren eguna ospatuteko asmoz. Eta zelai orlegi aren ganian, zeruba be gentzaz zan orduban urten ziran beŕanei ezpatadantzari. Iñoz eztoguz ikusi oŕen beste ezpatadantzari alkaŕekin.

Euŕez saŕtzen ziran jolas-tokira, baña amairik etzan. Ordu bat-edo igaro zan ezpatadantzarijak saŕtzen. Zelako ikuskaya. Bedaŕtza orlegijan geure ikuŕiñaren marguak, zoragaŕi ziran. Euzko-seme zintzuak eta lerdenak, euzko-umetxu txikijak, txikeŕenak eta andijenak, gustijak ziran bijotzari taupada gogoŕa eragiŕeko.

Eta txistu-otsak entzun ziran orduban, ango dantzeak eta ikotikeak poztu gindubezan. Neure albuan zan America'n ogeta bi urte egin dauzan bat eta negaŕ-egijan. Negaŕ ume batek legetxe, bere abeŕija ezautzen ezpa-eban be, igandeko ikuskayak begijak zabaldu-eragin eutsozalako. "Auxe dogu geure abeŕija, beste bategaz antzik be eztaukona".

Geure bixitzan eztago ikusi gauza edeŕagorik. Euzko-gastiak, geure begija auŕian beti darabilguzan gastiak, abeŕijaren itxaropena diralako. Eta arei begira, liluraz, ikeratuta, Catalunya eta Galicia'ko aldunak. Otero Pedreiro eta Carrasco Formiguera. ¿Zer senti ete-eben jaun oŕeik? Eztakit. Euren itxetan azaldu gura-ixan eben baŕuko taupadea, baña ezin.

Eŕi edeŕagorik eztala iñuan, Galicia'kuak. Aldun bijok txaluak eta txaluak joten ebezan.

Eta beŕanei areik zelayan zirala, Agiŕe'taŕ Joseba Andoni, abeŕijaren seme kutunak, itz-egin euskun. Bere itzetan suba jarijon. Bide oŕetatik, beti Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa'ren ikuŕin-pian jaŕaitzeko, eskatu eutsoen gastiai. Lasteŕ zan Egun Amija. Oidiño ez, baña eskubakin ikututen dautsogu.

Eta gaste gustijak Agiŕe jaunaren itzak entzun ebezan pozez ta dardaraz.

Gorularijak, palankarijak, Mutil-dantzea eta Kaxaŕankea. Eta abeŕizale gustijen abotsak Euzko-Abendearen Ereseŕkija abestu eban. Zeru goyetan be egaizka galdu zan geure ereseŕkijaren azken otsak.

Iñaki deunaren eguna, egun zoragaŕija, bijotz biguna edo abeŕtzalia daukogun gustijontzat. Egun oneik arinduten gabez ta urteko nekien eta samiñen ordez, poztasun edeŕena damoskube.

Onezkero Euzkadi ezta ilgo. Lenago bilduŕ-edo ixateko zan, baña gauŕtik ez. Orain iratzaŕtu da eŕija ta iñoren laguntza-barik, auŕera dagi. Eztauko iñoren bilduŕik. Bere ixate berezija ezagutu dau ta geruago ta sakonkiruago ezagututen dau.

Abeŕtzaliak iragi dabe abeŕi bat. Abeŕi ori iñok ezeban ikusten enago, iñopian egualako. Orain argi ta garbi dago geure begijetan. Ibayondo'n ziran ogei anei edo mila abeŕtzalietatik, geyenak gastiak.

Ixan be, beste alderdi batek eztauko geuk daukagun gokaya, gastiak gokai edeŕa gura dau. ¿Zelan igituko dozuz gastiak, euren adimenai gauza aintzagaŕija agertzen ezpa-dautsezu?

Eta an ixan ziranak eztabe aztuko iñoz igandeko ikuskaya. Begijetan saŕtuta eruango dabe. Ezin aldendu, ezin aztu.

Bai, buaz euren abeŕijetara Carrasco eta Otero jaunak. Esan begije eŕiz-eŕi, euzko-eŕija bixi dala, abeŕi bat ikusi dabela, baña ez abeŕi ila, ez abeŕi aula joranez mendi-gora duazan abeŕija baño.

Zenago txalo entzun ziran, an. Loreak dantzan ebiltzala irudijan zelayak. Saŕi ikusi dot solo zabal, amapolaz beterik. Alantxe eguan geure Ibayondo'ko zelaya be.

¡Euzko-eŕija, euzko-abeandea bixi adi, ezadi il! ¡Ez olakorik etxagok 'udijon. Atzeŕiŕaŕa ba'nintzok, eure seme ixan gurako neukek!

ERRIJETATIK

YURE

ONDO BAÑO OBETO DAGO.—Poz-pozik irakuŕi gendun igazi dan igandian Andra-Marie'etako jayetzaz "Emakume batek" idazten ebana. ¡A zelako egijak esaten ebazan! Emen datoŕ beste emakume bat be abeŕtzaliak nausi diran udalari oraňaŕte nausi ixan diran karlataŕen bidietatik eztayela jaŕaitu esaten. Abeŕtzaletasuna danezkero Abeŕijaren ageŕpen gustijak maŕte ixateko geure gauzak erabilten biaŕtuta gagoz, ba.

Onetara egiŕen eztogunaŕtian, oso-osoko abeŕtzaliak ezkara ixango, akats bat, txikijagua edo aundijagua beti ixango dogu, ba.

Oŕegatik, ba, Antselma, endore jauna; "Iturren,,'go Kepa endore-ordekua eta beste enparauko ziñegotzi edo kontzejal abeŕtzalioik, ia zelan atonduten dozubezan aurtengo Andra-Mari jayetako jolasak, Yuŕe'n iñoz ezagutu ixan ezturalako euzkel-jolasak ixatia gura dogu-ta.

Txistularijak ekaŕi-egixubez; bertsolarijak be ekaŕi; Aŕtea'ko albokari ta pandero-jotzaliak be egun oŕeitarako zuzendu -egixubez. Eta onei lagunduteko Batzoki'ko ezpatadantzarijak euki ezkero ¿zer biaŕ da, ba, geyago emengo zaŕ eta gastiai be aŕatsalde alai batzuk igaro-erazoteko?

Baten-batzuk jai oneik eralduten dozubezalako mar-marka zenbokaŕik erogoten ekingo dautse, baña zubek ez jaramonik egin, batzuben esamesak gora-bera ondo egiŕen dana ondo eginda egongo da-ta. Mar-markarijok, ba, maketuak dirala nai maketo-antzekuan dirala, Euzkadi geure Abeŕi maŕia Andaluzia-antzera ikustia gura dabenak ixango dira.

Gabean, baŕiz, ez igasko bestian jolasik luzatu. Igaskua laŕtxu ixan zan, ba. Ezkaŕezan jagi Zeru ta Luŕen Egiliak imiñiriko legien auŕka. Gaba atsedenduteko imiñi eban, ba. ¿Zelan "porteuko" ete-zarie, ba, aurtengo 15, 16 eta 21'teko jayetan? ¿Ondo? Olakorik ba'litz, izpaŕingi onen bidez txalotubak ixango zarie. ¿Txaŕto "portetan" zariela? ¡A, orduban!... tamalez beterik esan biaŕko dogu, zuben abeŕtzaletasunian eztogula ziñistuten.

Beste emakume bat.

BERMEO'TIK

ERIJOTZA.—Sodupe eta Ereňotzaŕ'taŕ Beniňe atzo Jauna'ren besuetan il zan. Goyan bego). Emakume on eta abeŕtzale zintzo au, gure adizkidia dan Arenaza'taŕ Jon Joseba'ren emastia ixan zan.

Sendi maŕagaŕijoŕek, ordu laŕi onetan aŕtu egixube geure tamal-aguŕik bijotzetikuena. Eta irakuŕle, zuk, be, otoi Beniňe zanaren gogo-aldez.

"EUZKO". — Gero ta gero be euzko -abeŕtzaliok itxaroten geban asteroko abeŕtzale au jayo da. Ondo etoŕija ixan datela, ba.

ARPIDIA.—Lenago esan geban lez ila onen 27'gaŕenan itxiko da Nabaŕa eta Araba-aldez emen zabaldu geban arpidia.

Batu danaren baŕi izpaŕingi onetan emongo dogu.

AŇANTZAU.—Auŕten eztot uste egaluzetan irabazte aundirik ixango danik. Auxe bai dala tamala!

URKIDI.

IEZAMA

JAYOTZA.—Igazi dan astelenian jayo eta egubaztenian ugatzau eben, Jakoba euzkel-ixen politagaz geure lagun eta abeŕtzale gorenguak diran. Atxutegi'taŕ Beŕnartin eta Zabala'taŕ Gergore'ren semetxuba.

Zorijonak guraso oni.

ASTORKI'TAŔ ILARI'REN ZELAYA.—Lasteŕ asiko dira lanian bitxabaletik eta pelota tokiya'rey atzeko alderaiño daguan uŕ-loizko, eŕekia estaldu eta len esan dogun zelaya leundu eta apain-apain ipiňiten.

Lan edeŕa benetan berau geure eŕija apuŕtxu bat dotoretuteko.

NASKALDIJA.—Geure eŕiko zinegotzi abeŕtzalia dan Ormaetxe'taŕ Jon eta bere emaste Eustake, juan dira egun batzubetako Burgos'era.

Ondo ibili.

GORULARIJAK. — Emengo neskatil gastetxuben aŕtian poz andija dago gorulari ikasteko, eta uste dogu aldi gitxi baŕu eukiko daguzala geure eŕijan gorularijak be. Auŕera, beti, eta zabaldu jel-azija.

TXIŔI.

Uaŕa.—Uŕengo idazkija idazten dozunerako, iraŕkiňaren izki-begijak ondo garbiŕu, idazki onetako izkirik geyenak itsubak dozuz-eta.

MAÑARIA

BALTZOLA'N. — Sorkunde Garbi-garja'ren irudija iminteko, baltzolaŕak, "Lourdes txikija" ereisten yakon toki txukun bat egin da-be. Lengo astian ixan gintzazan bertan, eta edeŕto atonduriko aitz-mokil areri oso poliŕa eretxi geuntson. Lourdes'kuaren antz-antzera egiňa da-ta. Ikusgaŕija da.

Toki txukun oŕen oneskundia, datoŕen igandian, ilaren 7'gn., ixango da. Au dala -ta, Baltzola'n jai andija ospatuko da. Amaŕetan, jaupa abestua berbaldi ta gusti; ta aŕatsaldeko iruretan be, aguŕtza deunaz batera elizkixun edeŕa Yente asko bertaratuko dan zaratia da Aŕatija'ko eŕijetatik batez be. Emetik be notin asko juango gara. Neskutza aintzalduten juateko, berarizko poz gozua dogu ta.

ZAURIŕUTA.—Egubaztenian, Belakortu'taŕ Juli, emeko U.-B.-B.'ko idazkari zintzua, Durango'ko etxe baten arotz-lanetan iňardubala, bigaŕen etxoňetik lenengora jausiŕa, arpegijan eta iztaŕian zauriŕu zan. Zorijonez baña, lenengotan uste zan lako zauri eŕimiak ez ei-dituz; lasteŕ osatuko dala, diňue ta. Arin eta ondo osatu ba.

JUAN-ETOŔIJAK.—Igazitako asteko barikuan Urkiola'n agurtu gebazan "Tabiraŕaŕa" ta "Torkatiko" euzkel-idazle azkaŕak.

—Igandian aguŕtau gebazan emen Agiŕezabal'daŕ Josepiňe ta Galartza'taŕ Karmele, Bilbao'ko neskatilak.

—Egun batzuk igaroten aurkitzen da, Solaun'daŕ Koldobika mutila.

—Astelenian egon zan emen, Abaŕua'taŕ Julen Durango'ko abeŕtzale zintzua bere emazte ta umetxuakaz.

—Laŕabetsu'ra juan zan Baŕenetxea'taŕ Polentzi jaupari aguŕgaŕija.

TOLOSA'KO JELTZALIAK.—Astelen goxian egon ziran "Kirikiño,,'ren ilobijan otoitz egiŕen, Tolosa'ko Euzko-Gastedija'ko jeltzale zintzuak. Gero, txango bat egiňaz, ingijak eta abar zabalduaz, Jel-azija ereten Gazteiz alderantza juan ziran. Orixe bai dala zintzuak ixatia.

EGUNA IGAROTEN.—Igandian etoŕi ziran Durango'tik ona eguna igaroten, Mentxaka'taŕ Elise, Garamendi'taŕ Kandida abeŕtzale zintzuaren emaztia, bere alaba Eskarne'gaz, ta Garamendi'taŕ Bingene neskatillea. Emen eguna edeŕto igarota, iluntzijan Durango'rantza pozik juan ziran.

GARI EBATEN.—Lugiňak gari ebaten diardube. Eurijaren bilduŕez edo, gari-ebatiok, bizkoŕ-bizkoŕ dabiltz. Aro onian egiŕen danak beti bere antza eukiŕen dau ta. Aurten emen, Goikua'ri eskeŕak, naigo gari onak dagoz.

JEL-MITIŇETA'RA.—Igandian, Areatzan (Villaro'n) ospatu zan euzko-jai edeŕera, emetik be abeŕtzale batzuk juan ziran. Baŕa, astelenian Abadiano'n egin zan mitin andira be, notin asko juan zan; eŕi ori uŕtxo be egiŕen dala-ta.

Ta, eŕi bi oŕetako jai abeŕkoyetan atsegiňez ibili zirala-ta, juan ziran gustijak pozik bijurtu ziran. Gauza edeŕ asko edestuten daustiez.

MAÑARIKO.

BUSTURIA

JAYAK. — Eŕiko jayak eŕikosementzat beti pozkaŕi oi-dirala be, busturiŕaŕok aurtenguak ainbat pozkaŕijago ixan doguz, geure eŕikoseme kutuna Agiŕe'taŕ Balendin'ek, New York'etik jayoteŕijan baŕiro ageŕturik deŕuta, Bizkai'ko lau alderdijetatik ziaŕ bertora eldu, yakuzan lagunekin egun oroigaŕijon alkaŕganatu gaŕubezala-ta.

"Bar Paco" deritxon jatexian batu gintzazala, etxeko sukaldian ekiŕen dabenak, ango iru mai luze inguruban gustijon atsegiňatzaz ba-ekijan zelan arduratu biaŕ jaki gustijak ezin obeto ipiňirik.

Balendin'ekin Luzaŕaga'taŕ Andolin bazkaldi "presidente" ixan gendun, ondo ixan be; geroko itxirik aiztu etxadin, Jagoba deuneko bazkaritzat jaten ixan doguzan gauz onakaz alako "menu" eralduteko Andolin andija, emengo eŕi-aldietako lelengo "gastrónomo" danaren eretxiz lagundu zaralako, maikide gustijon eskeŕ-aguŕa, Balendin aizkide ori, aŕtu egixu. ¿Nor ez-ete asebete, oŕetara?

Balendin'en emaste Bediŕa; Balendine, Ana, Miren eta Kepa seme-alabeak, Dunixe bere aŕeba ta Orbe jauna ezkon-anayarekin ona emen an batutako laguntza: Iturraspe andrea, Mugaŕtza alarguna, ta Ugarte ta Zabalandikoetxe andereňuak, eta gixonezko Arana (G.), Barakaldo'tik, Arana (P.) Santurtze'tik, Agiŕe, Apraiz (M. ta A.), Bibao, Elorieta anayak, Eskibel anayak, Etxebarria bertoko alkatia, Fradua, Garate, Goriño (B. ta R.) Iturraspe, Luzaŕaga, Mendoza, Orexa (J.), Ormaetxea, Toŕealdai, Ugarte jauna, Joseba Koldobika eta Jon bere seme bijokin Beriz'tik, Urioŕa, Uzelai, Zabalandikoetxea Ea'tik, Zabala Sukaŕieta'ko alkatia, ta Zabala (P. ta M.) jaunak. Beŕogetabosten bat emakume ta gixonezko laguntza onen aŕtian, euron munduziaŕ ibiltaldijak zirala-ta, an bai-zan zer edestu. Jan ondoren lasteŕ, abesti eŕeskadeak pozaŕen asi be. Iturraspe jaunak (euzkeldun gurasoen semia, New York'an jayo ta asi, ta orain uri andi oŕen "policeman" dana) abeŕitik uŕun dagon euzkeldunaren gomutea zoli abestu euskun. Olan, batek asi ta bestiak jaŕaitu, ainbat urte Amerika ta itxasoz ibiliko lagunen aŕtian, maigaňeko aspaldi luzetxuba juan yakun.

Euzkalduna ba'ta iñungo baño dantzari obia dala erakusteko gure aŕteko batek ekin eutsan, eta ondo erakutsi be, sabela bete -beterik eukan eun kilodun busturitaŕa.

Amaikeraz, Luzaŕaga ta Mendoza jaunen aguŕak entzunda, bere betiko egiŕei-jaŕai, Balendin'en geure euzkerazko itzaldi begiko entzun geuntsan. Emen, nai Amerika'n, batez be, euzkaldunen auŕerapenagatik ainbat lan egin daben euzkaldun uts onek, beti euzkaldunei euzkeraz.

Busturiŕaŕ Bat.

GEŔNIKA

Geŕnikaŕ-Batzoki'ko bazkide ezagun batzuk euren antziňeko oŕureari jaŕaitua igazi dan igandia, Iñaki bizkaŕaŕon Zaindari deunaren eguna oturuntza bataz ospatu eben.

Oturuntza au Aŕien'daŕ Ixidor adizkidiaren jatetxian ixan zan. Biŕorene etxekandra maratza soňez dan baxen esku-zabala da-ta, bazkari edeŕa ta ugarija mairatu euskun, ta saneuŕi merkekua ganera.

Datoŕen urtian be—J. L.—Ixidor adizkidiaren jatetxera juan biaŕko gara.

MAIKIDE BAT.

MUNGIA

Bijaŕ egubazten, eta etzi eguben goxeko saspi ta erdijetan, eŕi onetako eŕtxadonan Jauregizaŕ'taŕ Josebe, Atxondo'rena eta Mentxaka'taŕ Elixabete anderaňua bazkiden gogo-aldezko jaupea ixango da. Jaupostian ilotoya otoiztuko da. Bazkide gustijai eskatzen yake jaupa oŕetara utsik-egin barik eldu daŕezela.

Emakume Abeŕtzale-Batza.

Lendakarija.

Barriola'tar I. M.

Gaixotegi'ko sendagillea urdail - gibel - este.
GARIBAI 20, 2.º — DONOSTIA

Uribe'ren Jostolea

Alkondara eta enparauko gixon-janzkiyak.
Loyola-kalea'n 3'garren zen bakiyar
DONOSTIA'N.

ERNANDORENA

ORTZLARI (DENTISTA)
PRIM-KALEAN, 31, 2.º — DONOSTIA

Rectificando

La Asociación de Inquilinos de Begoña

La Asociación de Inquilinos de Begoña nos comunica, con referencia a una nota publicada en este mismo periódico, que se cree en el deber de hacer público, para conocimiento de los inquilinos en general y de todos sus asociados en particular, que la Junta directiva está dispuesta a asumir la responsabilidad en que haya incurrido si se le demuestra que en alguna ocasión haya pretendido imponer alguna orientación política determinada a sus asociados, que no ha tenido en cuenta para nada el color político del local solicitado y sí únicamente la economía y comodidad de los asociados; que mal podía rectificar la Directiva esta decisión, por cuanto que ningún asociado lo ha solicitado, y que es cierto que sus Estatutos dicen que la Asociación no tiene carácter político ni religioso, pero que también es cierto que no especifica en qué locales habrán de reunirse o no las juntas generales.



COMPRA VENTA Y REPARACION DE TODA CLASE DE BASCULAS
ARTECHE Y LEBRERO
Nameda de Urquijo 12 BILBAO

Sastrería de Ugarriza

LOTERIA, número 1, tercero izquierda.
BILBAO

Koldobika

I. — KOLDOBIKA IGITIRUDIJETARA

(Jaŕaipena)

Ain zuzen be, Elene, Koldobika'ren aŕeba nagosija, gixon gaste bategaz eguan ate onduan. Eskubak alkaŕeri estutu ta ba-zirautsan Elene'k:

—Al dagidana egingo dot nik zure aldez.

—Ba-dakit egingo dozuna—esan eutsan gizon gastiak.

Zati baten alkaŕeri eskutik elduta egon ziran, eta begirune luze bat batak-bestiari egin ostian, aldendu zan ene gixon gastia. Elene, ara bere, atian gelditu zan gastiari atzetik-ara begira, begijetan aguŕ gozo bat ebala. Koldobika'k etziŕutzan uaŕtu azkeneko itzok eta alkaŕeri esku-estutziak besterik, baña arduraian jaŕi zan ikusi ebanaz.

—Peli Makuŕena ixan da ori, ezta?—iŕaundu eutsan aŕebeari.

—Bai—erantzun eutsan Elene'k jaramon andi bagarik, eta etxe baŕuan saŕtu zan.

A begirunea, ain luzaro eskubak alkeŕeri emonda egotia ta areik azkeneko itzak, gomuta-gomutan geldiŕu yakozan Koldobika'ri. Antza, bere aŕebeak eta ak gixon gastiak alkaŕ eben atsegin, neska-mutilak ezkongayetan ixan oi daben antzera; baña, alan-da-be, Koldobika'k ba-ekijan ondo areik bijak ezkongayak etzirana, senaŕ-emaztegayak beňipein. Biaŕba, aŕokerijaren-aŕokeriz, ez batak ez bestiak amore ez emon nai, ta alkaŕ maŕe ebela ezeutsen batak -bestiari esan gura, igiŕirudijetako arako zaldun aŕuak eta andereño aŕuak letxe-letxerik. Elene'k be, igiŕirudijetako nebea lango bat biaŕ eban, areri gixon gastiari bere aŕebeak ba-ebala maŕe esateko. Bat -batian, argi bat biztu yakon Koldobika'ri adimenian, eta oldozkuna sakoneian ekin eutsan zati baten. Etxeko aretotik Elene'n eta amaren berbarua etoŕen:

—Gixagaxo bat da Makuŕeneko gaste ori. Datoŕen igandian eskatuko ei dautso eskuba Trokabiŕarteneko neskatila zaŕentxubari. Mutilak berak, Peli berberak esan daust niri: neskatilearen lagunik uŕkuena ei naz ni, ta arek bayetzik emongo ete dautsan jakin gura ixan ei dau lenago niganik. Bayetz, erantzun dautsat nik: eztala iguin eragiŕeko lango mutila, ta nik neure aldetik neuk al dagidana egingo dodala bere aldez eta esango dautsadazala neskatileari berbatxu bi poliŕo esanak. ¿Ez-al-deritxazu ondo?

—Bai, ene alabea. Baña, esan; ¿gure Koldobika ikusi al-dozu iñon? Ezpiaŕen bat jazo ixan ez ete dakijon bilduŕez nago.

—Ointxe berton egon da etxe-auŕian, baratzian — Eta leyora juanik — Baña orain eztago; itsutu da emendik. ¿Nora juan ete da?

Koldobika, baŕiz, ordu-bai-ordu, Makuŕeneko atadijan eguan. Neskame batek saŕtu eragin eutsan Peli eguan txakijan.

—Ezkeŕeneko mutila, jauna! — esan eban neskamiak mutilaren saŕerea adijerazuez.

Erdi aŕituta, erdi maŕekoŕ, jagi zan gixon gastia etoŕi-baŕijari abegi on egiŕen. Entzutez be ozta eban Koldobika ezagun

—¡Aŕasti on! — esan eutsan Koldobika'k — Elene'ren ordez natoŕtzu.

—¡Bai, ete?

—Bai. —Saŕtu eban Koldobika'k sakelian eskuba eta arik gexu batiah atara eban erakusmeneko laŕosa goŕi bat erdi maziŕuta Mats-Garaun-Begijakin nastian 'egona zalako sakelian; aizko bat, tuŕintxa bat eta beraun zati bat.

—Zuretzat emoteko esan daust—eta laŕosea luzetu eutsan. Peli Makuŕena amesetan bai'leguan gelditu zan laŕoseari begira.

—"Gorantzijak-gorantzi, ta ez nigaz iñoiz antzi" esan gura dau-azaldu eutsan Koldobika'k.

—¿Bai, ete? Da... Da... ¿besterik ezer esan al-dautsu?

—Bai, beintzat. Gauŕ iluntzian bera ikusten geurera etoŕteko.

—Bai, bai; ¿Juan ez, ostera? Baña... baña ointxe berton ixan naz beragaz. Biaŕ ba, nik alde eginda gero, zerbaiŕ gomuta yako niri esan biaŕa.

—Biaŕ ba.

—Eta zer ordutan juateko, ¿esan al-dautsu?

—Ez. Zortziretan-edo, nik uste.

—Bai, bai.

Peli Makuŕena'k geruago aŕiŕubago begiratuten eutsan laŕosa erdi zimel eta ain -garbija-be-ezari.

—Zure aŕebeak..., zure aŕebeak bialtzen daustala au, diňozu?

—Bai.

—Eta, beste geznarik, eŕekadurik?

—Bapez.

—Tira, ba. Esan pozik juango nazala; ¿esango dautsazu, ezta?

—Bai.

Ixilunea. Geruagogaŕenian, Koldobika'k:

—Beti dijardu zutzaz oldoztu ta oldoztu, bai gure Elene'k.

Peli Makuŕena'k esku bat eruan eban bekokira.

—¿Bai, ete? ¡A... a... ako araŕasuna nigaz!

—Eta beti dijardu zutzaz izketan, amesetan be—ganeratu eutsan Koldobika'k bere burupidiari gogoz ekiňez—. Beren alboko gelan egiŕen dot nik lo, eta oŕegatik dakit zutzaz egiŕen dauala amesetan, neuk entzuten dautsat-eta. Beti dijardu zure ixena esaten, esan eta esan: "Peli Makuŕena, Peli Makuŕena, Peli Makuŕena..."—Koldobika'ren aboisa beruaren-beroz eta sakonaren-sakonez, makal eta gaŕamaztu urteten zan — Beti oŕexetara; ta ostera be baŕdin, eta ostera be baŕdin: "Peli Makuŕena, Peli Makuŕena, Peli Makuŕena..."

Peli Makuŕena itzik gabe gelditu zan. Eta bere ikeŕtzale gastiari arpegi ixutubaz begira-begira, aulki baten jezaŕi zan.

—¿Eskijeŕ al-zagoz?—iŕaundu eban azkenian. — Ba-liŕeke beste iñoren ixena ixatia, niria barik.

—Ez, beintzat—erantzun eutsan Koldobika'k tinko-tinko—. Zure ixena: "Peli Makuŕena, Peli Makuŕena, Peli Makuŕena...", onexe-onexetara. Eta jan be, ija ezer be eztau jaten orain. Beti dago leyuan jaŕiŕa, zu noiz igaroko begira ta begira.

Arnaseak be iges egin eutsan Peli'ri. Bekokijan ixerdi otz-otza urten yakan.

—¡Au da ixugaŕija!—esan eban azkenian, baŕu-baŕutik urteniko zinkurin motel bat egin ostian.

Koldobika lasaŕu egin zan. Azkenian be arek gixon gastiak ezagutu egin eban bere bijotz - ankeŕtasuna Elene'ganako! Baña Koldobika etzan zeregiňak erdiz-erdizka egiŕeko mutila. Jezaŕiŕa iraun eban, ara bere, ta uŕen zer esango oldoztuten aragoion. Ekanduaren andiz, esku bat saŕtu eban sakelian, eta Mats-Garaun-Begi bat eruan eban abora. Peli Makuŕena be jezaŕiŕa eguan, begi ta arpegi ixuturik, ezerberezen adi.

—Zure argazki baŕ dauko—esan eban Koldobika'k geruagogaŕenian—eta katetxu bategaz idunetik eskegiŕa erabilten dan alako gauzatxu biribil baten baŕuban dauko saŕtuta.

—¿Eskijeŕ zagoz?—esan eban Peli'k uste gustijak be galduta.

—"Eskijeŕa adua da"—esan eban Koldobika'k aulkiŕik jagirik. — Nik juan egin biaŕ dot. Ba-dakixu, beraz: gauŕ iluntzian eta bakaŕian ikusi gura zaŕuzala. Aguŕ.

Baña Peli Makuŕena'k ezeutsan ezer erantzun. Koldobika aŕo asko juan eta gero be, zati baten egon zan Peli aulkiŕik jagi barik, auŕera begira, baña ezerberezeri adi.

—¡Jaungoiko maŕia!—egin eban azkenian bere ezpan legoŕtubak ezetubez.

Etxerantz joialarik, igiŕirudijetaz oldoztuten eragoion Koldobika'k. Axe margolarijarena be poliŕa ixan zan, ba. ¡Ango baŕbiaŕ dot. Ba-dakixu, beraz: gauŕ iluntzian laka jaustian eta burutik biatzetara margoz atsiŕu-zikindu ziranian! Baña, baŕiaren -baŕez ija aiztu yakan gaŕantsi andiko gauza bat. ¿Zer diantre egiŕen iñarduan arek margolarijak asikera-asikeran, atia margoztuten asi orduko? Antza, ateko margo zaŕa kentzen eragion kurtzulu antzeko suzko tresna aregaz eta aiztuaz; eta gero, bai gero, asi zan atia margoztuten. Bigundu lenengo margo zaŕa ta gero eratzi aiztuaz. Ezeban ikusi ordurarte olakorik egiŕen, baña berak uste ebana zan, aurki. Bigundu lenengo suzko tresnaren bategaz eta gero eratzi. Olan ixan eŕekianik ezekijan eskijeŕ, baña lasteŕ ikusi eukian. Etxian saŕtubaz batera atera sakeletik aizkua, zabaldu eutsan oŕija, eta gorantz igo zan.

OTXOLUA'k
ingalanderatik atonduba.

Atzalgaŕijak: "Ezkongai", novio (conviene no confundirlo con "ezkonge", soltero); "amore emon", ceder; "igiŕirudijeta", cinematógrafo; "areto", sala; "ordu-bai -ordu", en aquellos momentos aproximadamente; "txaki", departamento, habitación; "aizko", cortaplumas; "tuŕintxa", trompo; "antzi" (ahantzi, aantzi), olvidar; "aŕatasun", afabilidad; "ikeŕtzale", visitante; "eskijeŕ", seguro; "zinkurin", gemido; "aŕgazki", fotografía; "ezetu", humedecer; "margolari", pintor; "zurubi", escalera; "margo", color, pintura; "aizto", cuchillo.

(Jaŕaitzeko)

G. Guerrica-Echevarría

GARGANTA, NARIZ Y OIDOS
Especialista. Consulta de 10 a 1.
PRIM. chalet Aldape.—Telf. 10.617

Eutrapélico

Una supuesta visita de don Alfonso Carlos a Durango

El bulo de la pasada jornada dominguera, según dice la "Hoja oficial", fué la supuesta estancia en Bizkaya del llamado pretendiente don Alfonso Carlos. Según dicho rumor, don Alfonso Carlos fué traído desde Austria por sus seguidores el domingo día 24 pasado para que viera "por sus propios ojos" la cantidad de adeptos y la calidad de los mismos con que cuenta por aquí, con ocasión del famoso mitin tradicionalista, acerca de cuya concurrencia se fantaseó de lo lindo. Añadíase que don Alfonso Carlos presenció el desfile de las huestes tradicionalistas desde el mirador de una conocida personalidad tradicionalista de Durango, y que quedó muy gratamente impresionado de ambas cosas.

Pero aún se añadía más. En efecto, se decía que la Policía llegó a enterarse de la presencia del anciano pretendiente, quien si pudo entrar en la península bien no le aconteció lo mismo al tratar de salir, pues los agentes policíacos vigilaban. Don Alfonso Carlos hubo de permanecer escondido en un caserío de Nabarra.

Esta noticia fué acogida en algunas tertulias humorísticamente, y sirvió admirablemente para entretener los ocios de las mismas. Desde luego, nadie o muy pocos se decidieron a darla crédito.

Desde luego, el jefe de la Policía en Bizkaya no se mostraba ayer preocupado lo más mínimo por esta supuesta visita a Bizkaya del denominado sucesor de don Jaime.

OCHOA H.nos

Papeles pintados

Jardines, 12. : : Teléfono 2.450

Conferencia del señor Mar

Los naufragios del "Cardenal Cisneros", "España" y "Blas de Lezo", explicados técnica y claramente

Con este tema y con las cartas náuticas a la vista, el capitán de la Marina mercante don Ramón de la Mar dará mañana, miércoles, a las siete y media en punto de la tarde, en el salón del hotel Carlton (entrada por Rodríguez Arias) una interesante conferencia.

Dada la trascendencia del tema, se puede esperar una gran concurrencia.

El acto será público.

Socio o comerciante

Euzkeldun

Se desea socio capitalista o comerciante que desee ampliar su negocio con comerciante establecido de sastrería en la calle del Correo, antiguo y acreditado.

Informes, EUZKADI.

UGARTETXEA TAR I.

Eizarako eta usokuma-tirorako eskopeta-mian ola.—Eibar

Transportes "Barba"

Servicio rápido a domicilio desde Barcelona y demás centros industriales de Cataluña. Acarreos a precios económicos de MUEBLES y toda clase de MERCANCIAS, dentro y fuera de Bilbao.
Informes: Elcano, 24. Tfno., 12.832

PIDE, ABERTZALE, ANIS
EUSKARIA
CASA MARCIAL BERROETA
Villafranca de Oria (Guipúzcoa)

GOBIERNO CIVIL

El gobernador explica actitud en la cuestión de colgaduras por la festividad de San Ignacio

El llamado Día Rojo discurrió con tranquilidad

El domingo pasado, a las siete de la tarde, regresó a Bilbao el gobernador señor Calviño, quien conferenció inmediatamente con el gobernador en funciones señor Donoso Cortés.

Mantuvo una entrevista con un redactor de la "Hoja oficial", que reproduce esta entrevista.

El señor Calviño juzgó conveniente aclarar lo ocurrido con la orden de prohibición de colgaduras con motivo de la festividad de San Ignacio, orden que fué revocada.

Explicó que durante su estancia en Donostia había advertido que los periódicos recomendaban la colocación de colgaduras aun por aquellos sectores que no las usan ni son simpatizantes con el carácter conmemorativo de la fiesta. Añadió que esto calificó de maniobra, no le pasó inadvertido, puesto que, a su juicio, se pretendía hacer una demostración contra el régimen que no podía tolerar. Recordó el señor Calviño que con motivo de la fiesta de los los periódicos tradicionalistas publicaron el decreto del llamado pretendiente Don Carlos para que se engalanasen los balcones y ventanas, exhibición que prohibió por entender, y en esto dijo que contaba con el asentimiento de los sectores profundamente católicos, que a costa de la religión quería hacer política contra el régimen, elementos que no lo reconocen ni

Prosiguió diciendo que la ingerencia ahora se pretendía en una tradición que viene cultivando de siempre el Partido nacionalista Vasco le hizo sospechar como fundamento en otra maniobra de especie. Piensa que acaso quieran ver esto una faceta de la persecución a la religión, lo que a su entender no tiene ningún fundamento.

"Si en mi ánimo estuviera—añadió—habría prohibido incluso que se exhibiera la enseña nacional y colgaduras de los balcones de otras banderas. Por un decreto del Gobierno provisional de la República fueron fijadas las banderas que pueden verse, juntamente con la nacional, en edificios oficiales. Yo iría contra la religión si pusiera dicultades para que se fundieran sus postulados en la Prensa y la tribuna; pero este truco se descubre si se recuerda que el domingo pasado se autorizó en Durango un acto público que pude suspender si existieran en mis propósitos que seguramente se me atribuyen, no por los verdaderos católicos, sino por los interesados en mantener y fomentar el confusionismo."

Terminó su alusión a este tema diciendo que se había limitado en definitiva a cumplir los términos de un decreto del Gobierno.

Con motivo de celebrar ayer los nacionalistas el llamado Día Rojo, la autoridad gubernativa tomó precauciones para mantener el orden. Por la población circularon rondas volantes de agentes de dicha autoridad. Además, las fuerzas de orden estuvieron en los puntos estratégicos en forma disimulada para poder acudir a los lugares donde se hiciera necesaria su presencia. Iguales precauciones se adoptaron en las zonas fabril y minera, especialmente en Barakaldo, en donde, según las impresiones que se tenían con anterioridad, de una vez pudieran concentrar los elementos comunistas sus mayores posibilidades de acción para la revuelta.

A primera hora se trasladaron a la localidad parte de las fuerzas de la guardia de asalto que presta sus servicios en Bilbao. Su paso por las calles, en un camión, despertó en el público algunos quietud, que se desvaneció pronto.

Desde primera hora se montaron también servicios en fábricas y talleres para garantizar la entrada de los obreros al trabajo.

La jornada transcurrió tanto en Bilbao como en las zonas expresadas y en los pueblos de Bizkaya sin que se alterara el orden ni se perturbara la tranquilidad.

Igualmente no se llevaron a la práctica los propósitos, expresados por medio de unos pasquines clandestinos, de llevar a cabo una manifestación para propugnar el subsidio obrero de tres pesetas a cuenta del Estado, la Diputación y los patronos; de todo ello se deduce que los elementos comunistas, si tuvieron realmente propósitos de manifestarse con estos motivos, desistieron de ellos.

Una Comisión de la Agrupación Socialista de Erandio estuvo el domingo en el Gobierno civil, entrevistándose con el gob